



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA
2016/12/26

Bizkaiko Batzar Nagusiek euren ardurea erakutsi dabe, Israel eta Palestina arteko pake prozesuaren "blokeoa" dala eta

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onartu dabe Israelek eta Palestinak, lurraldeen okupazioa dala eta, aspalditik daben gatazkaren pake prozesuaren “blokeoa” dala eta ardurea erakusten dauen zuzenketa-eskea. Holan, Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen barruan, 50 urte beteko dituan eta munduko gatazka “luzeena” bilakau dan gatazka konpontzeko beharrean inpliketako eskatu jako nazinoarteko komunitadeari. NBEko Segurtasun Kontseiluak, polemikea sortu dauen Estatu Batuen abstentzinoagaz, beste gauza batzuen artean Israeli asentamenduen jardurea eta handitzea gelditzeko eskatzen deuson ebazpena onetsi eta egun batzuetara heldu da Zuzenketa-eskearen onespena.

Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur adostu daben testua Euzko Abertzaleak, EH Bildu eta Euskal Sozialistak taldeek Podemos Bizkaiak aurkeztu dauen arauz besteko proposamen bati aurkeztutako zuzenketa-eskea izan da, eta zuzenketa-eske horrek Bizkaiko Talde Popularraren aldeko botoa be jaso dau. Bertan, “Giza Eskubideen eta nazinoarteko legetasunaren edozein zapalkuntza gaitzesten da”, eta Nazino Batuen Erakundean Palestinako Estaduari jagokonez hartutako ebazpenakaz bat egiten dala adierazoten da, horreek beteteko eskatuz Israeli. Batzar Nagusiek berretsi egin dabe Palestinako herriaren eskubideak defendiduteko eta herri bientzat modu berean “pakea, justizia, segurtasuna eta duintasuna” nagusi izango diran etorkizuna eregiteko behar egiteko konpromisoa.

Gainera, 2014an Eusko Legebiltzarrak onetsi eban arauz besteko proposamenari jarraituz, lurraldeko erakunde publikoek Israelgo erakundeakaz sinatu ahal izan dituen akordioen inguruko txostena aurkezteko eskatzen deusie Bizkaiko Batzarrek Aldundiari.

Gainera, Bizkaiko Batzarretan egon diran talde guztiek –Taldea Mistoko ordezkaria ez da egon– onartu daben zuzenketa-eskea nazinoarteko erakundeek adierazotako gomendioen alde agertzen da, Europar Batzordeak, lurralde okupatuetatik datozen Israelgo produktuak modu berezian etiketatuko egin dauen eskaria, edo “Ekialde Ertaineko Laukoteak” orain denpora gitxi idatzi dauen txostenean egin dituan iradokizunak apliketea, adibidez. Azken txosten horretan gatazka konpontzera zuzendutako hainbat neurri zehazten dira. Hagako Nazinoarteko Epaitegiak, “Lotsaren hormea” birrintzeko aginduz emon dauen epaia beteteko eskaria be egiten jako Israeli, horma horrek “ez daukalako ezelangoko justifikaziorik, ezta segurtasun errazoiak dirala eta be”.

JOSE LUIS BILBAO KPEE-KO BURU IZATETIK KENTZEKO ESKATU DAU PP TALDEAK, HABIDITE KASUA DALA ETA

Beste alde batetik, PP taldeak, Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldun Nagusia izandakoak, une honetan Kontu Publikoen Euskal Epaitegiko presidente moduan beteten dauen karguan “dimisinoa aurkeztea edo atoan kargutik kentzea” eskatu dau gaur, Europako epaitegiak, 2006an Habidite enpreari, etxe modularrak egiteko planteia eregiteko emon jakozan laguntzak “legez kanpokoak” zirala esan ostean. Joan dan urrian, Europar Batasuneko Justizia Epaitegiak (EBJE)



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

ez eban onartu laguntza horreek legez kanpokoak zirala esanez 2015ean Europar Batzordeak (EB) hartu eban erabagiaren kontra Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztu eban kasazino helegitea.

Ebazpen hori ezagutu ostean, Javier Ruiz PPko batzordekideak Unai Rementaria egungo Bizkaiko Ahalduen Nagusiaren agerraldia eskatu eban Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen aurrean, gai horren inguruko balorazino politikoa emoteko.

Agerraldia gaur egin da, agertu dana Imanol Pradales Ekonomiaren Garapen eta Lurralde diputatua izan dan arren. Diputatuak azpimarratu dauenez, aurreko legealdian, Bilbao Foru Aldundiko buru zala, Aldundiak onartu eban daborduko bere akatsa “gero porrot egin eban enpresa proiektu batean sinistu ebalako”. Azpimarratu dauenez, epai finko horrek atzera botaten ditu Bizkailurren eta Afer taldearen artean sinatu ziran hitzarmen biak, ez jakozalako Europar Batzordeari “proiektua martxan egoan unean bertan” jakinarazo, ezin ziralako aurrera eroan EBaren baimen barik.

Pradalesek ziurtatu dauenez, aurreko gobernu taldearen erabagiak ez dau ondorio ekonomikorik izan bizkaitarrentzat, Habiditeri “ez jakolako euro bakar bat be emon laguntzetan”. Proiektu horren bultzatzailea, Jabyer Fernández, kartzelan dago, beste gai bategaz erlazionautako kaudimen falta zigorgarri delitua dala eta, Iurbenor kasu moduan ezagutzen danagaz, hain zuzen be.

Diputatuak esan dauenez, Foru erakundeak “130.855,35 euro” gastau ditu Habidite kasuan, aholkularitza juridikoan. Bere eretxiz, Habidite kokatu behar zan Alonsotegiko lur-zoru industrialeko 200.000 metro karratu baino gehiagoko lurraengaitik Aldundiak ordaindu ebazan 4,8 milioi euroak “inbertsinoa dira, eta ez gastua”, oraindino erakundearen esku jarraitzen dabelako. Pradalesen eretxiz, Bizkaiko herritarrentzat onargarria da Administrazioek “arriskuak hartzea, batzuetan, proiektu horreetako batzuek porrot egiten daben arren”.

Azalpen horreen ostean, Javier Ruizek berretsi egin dau kasu horretan “aldeko tratu nabarmena” egon zala Jabyer Fernándezen alde, eta baita haren enpresearen “alde jotzeko interesa” be, eta “oraindino ez dakigu zeintzuk izan diran horren guztiaren kontrapartidak”. Dana dala, beste edozein herrialdetan, garai haretan Ahalduen Nagusia zanak, Jose Luis Bilbaok, zigorra jasoko eban, baina hemen zigorbakotasun politiko kasuak emoten dira, eta horren ondorio moduan, azpimarratu egin behar da Kontu Publikoen Euskal Epaitegiko presidente izendatu ebela. Hori dala eta, kargu horretatik “atoan kentzeko” eskatu dau.

EAJ-PNV taldearen aldetik, Ruizen kontakizunak “zuzentasun falta handia dauela eta ozartasunetik oso gertu dagola” esan dau Jon Sánchezek, eta esaten dauena egia dala uste badau “serioa izateko eta epaitegietara joateko” eskatu deutso. Bere esanetan, Aldundia “obsesinatu egin zan Bizkaiko interesen defentsan”, Jabyer Fernándezek bizkaitarroi guzurre esatea gure ebalak konturatu zanean; dana dala, ez da ahaztu behar Jabyer Fernándezek gauza bera egin ebela “Espainiako Erresumegaz eta Aragoiko, Andaluziako eta Euskadiko gobernuekaz”, Pradalesen berbetan.

PSE-EEko Ekain Ricok aurreko Foru Gobernuak gai honen inguruan aurrera eroan eban kudeaketa “negargarria” kritikau dau, baina “erantzukizun politikoak erabagi hareek hartu ebezanak dirala azpimarratu dau, eta ez gaur egun erakundea zuzentzen dabenenak”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EH Bilduko eta Podemoseko batzordekideek, euren aldetik, proiektu horren kudeaketa “penagarria” azpimarratu dabe, eta “erantzukizunik hartuko ete dan” galdetu dabe, “parkamena eskatzea ez dalako nahikoa”.

BATERAEZINTASUNEN INGURUKO FORU ARAUA

Batzorde berean, Podemos Bizkaia taldeak “Osotasunari, interes-gatazkari eta bateraezintasunei buruzko Foru Arauaren” betete mailaren inguruan egin dauen galderari erantzunez, Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Andreak arauzko proiektuaren erregistroan zelanbaiteko atzerapena dagola onartu dau, gaur egun indarrean dagozan gardentasunaren eta gizarte klausulen foru arauak kontuan izanda arautegi hori egiteak behar asko eskatzen dauelako. Dana dala, Aldundiko arduradunak esan dauenez, Aldundiko baliabideak erabilia prestauko dan dokumentua 2017ko “lehenengo hilebeteetan” egongo da prest. Talde moreak esan dauenez, Aldundiak aurton aurkezteko konpromisoa hartu eban, Bizkaia Goazen 2030 planean argitaratu zan kronograman oinarrituta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/12/2016

Las Juntas Generales de Bizkaia muestran su preocupación por el "bloqueo" del proceso de paz israelo-palestino

Las Juntas Generales de Bizkaia han logrado sacar adelante por unanimidad una enmienda para mostrar su preocupación por el “bloqueo” del proceso de paz en el histórico conflicto que mantienen Israel y Palestina por la ocupación de territorios. En este sentido, han pedido hoy a la comunidad internacional, en el seno de la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de la Cámara vizcaína, que se implique en la resolución de un conflicto que está a punto de cumplir 50 años y que se ha convertido en el “más longevo” del mundo. La aprobación de esta enmienda llega varios días después de que el Consejo de Seguridad de la ONU haya acordado una resolución, con la polémica abstención de EE UU, en la que se pide a Israel que detenga la actividad y la expansión de los asentamientos, entre otras cosas.

En el texto acordado hoy en el parlamento vizcaíno, una enmienda transaccional de los grupos junteros Nacionalistas Vascos, EH Bildu y Socialistas Vascos a una proposición no de norma planteada por Podemos Bizkaia, que ha contado también con el apoyo del grupo Popular Vizcaíno, se “condena cualquier vulneración de los Derechos Humanos y de la legalidad internacional”, y se muestra la adhesión a las resoluciones emanadas por Naciones Unidas en relación al Estado de Palestina, instando a Israel al cumplimiento de las mismas. Las Juntas Generales reafirman su compromiso de defender los derechos del pueblo palestino y de trabajar para “construir un futuro de paz, justicia, seguridad y dignidad” para ambos pueblos “por igual”.

Asimismo, en seguimiento a la proposición no de ley aprobada en 2014 por el Parlamento Vasco, la Cámara vizcaína solicita a la Diputación foral que presente un informe sobre los acuerdos que se hubieran podido firmar por las instituciones públicas del territorio con instituciones israelíes.

Además, la enmienda aprobada por todos los grupos presentes en la Cámara vizcaína – faltaba el representante del grupo Mixto– apoya las distintas recomendaciones expresadas por instancias internacionales, como la petición de etiquetado de productos israelíes que provengan de los territorios ocupados realizada por la Comisión Europea, o la aplicación de las sugerencias del reciente informe del “Cuarteto de Oriente Medio” en el que se detallan las medidas a adoptar para resolver el conflicto. Instan a Israel a cumplir el fallo emitido por el Tribunal Internacional de La Haya sobre la destrucción del “Muro de la Vergüenza” que “no tiene justificación , ni siquiera por razones de seguridad”.

PP PIDE EL CESE DE JOSÉ LUIS BILBAO AL FRENTE DEL TVCP POR EL CASO HABIDITE

Por otra parte, el PP ha pedido hoy “la dimisión o cese inmediato” del anterior diputado general de Bizkaia, José Luis Bilbao, de su cargo actual de presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, después de que los tribunales europeos hayan sentenciado que las ayudas concedidas en 2006 a la empresa Habidite para la construcción de una planta de casas modulares fueron “ilegales”. El pasado mes de octubre, el Tribunal de Justicia de la Unión Europea (TJUE)



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

desestimó un recurso de casación de la Diputación Foral de Bizkaia contra la decisión de la Comisión Europea (CE) que en 2015 declaró ilegales dichas ayudas.

Tras conocerse dicha resolución, el juntero del PP, Javier Ruiz, solicitó la comparecencia del actual diputado general de Bizkaia, Unai Rementaria, ante la comisión Institucional de las Juntas Generales de Bizkaia para que ofreciese una valoración política sobre este asunto.

La comparecencia se ha efectuado hoy, aunque con la presencia del diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, quien ha destacado que en la anterior legislatura, con Bilbao al frente de la institución foral, la Diputación ya reconoció su equivocación por "crear un proyecto empresarial que luego resultó fallido". Ha resaltado que la sentencia firme viene a tumbar los dos convenios firmados entre Bizkailur y el grupo Afer por no haber sido notificados a la comisión europea "en el estado de proyecto", ya que no podían llevarse adelante sin la autorización de la CE.

Pradales ha asegurado que la decisión del equipo de gobierno anterior no ha tenido consecuencias económicas para los vizcaínos ya que "no se concedió ni un solo euro" en ayudas a Habidite, cuyo impulsor, Jabyer Fernández, está en prisión por un delito de insolvencia punible relacionado con otro asunto, el conocido como caso Iurbenor.

Según el diputado, la institución foral ha gastado por el caso Habidite "130.855,35 euros" en asesoramiento jurídico. En su opinión, los 4,8 millones de euros que la Diputación pagó por más de 200.000 metros cuadrados de suelo industrial en el municipio de Alonsotegi, donde se ubicaría Habidite, suponen una "inversión no un gasto", ya que siguen en manos de la institución. Pradales cree que la ciudadanía vizcaína admite que las Administraciones "asuman riesgos, si bien, a veces ,no todos los proyectos tienen éxito".

Tras estas explicaciones, Javier Ruiz ha mantenido que, en este caso hubo, "un trato de favor descarado" hacia Jabyer Fernández y "un interés en favorecer" a su empresa "sin que se sepan cuáles han sido las contrapartidas". "En cualquier otro país se hubiera castigado al entonces diputado general, José Luis Bilbao, pero aquí se dan situaciones de impunidad política, y la consecuencia es que le nombran presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas", ha dicho y, por ello, ha solicitado su "cese inmediato" de ese cargo.

Por parte del PNV, Jon Sánchez, ha replicado que el relato de Ruiz adolece de "falta de rigor y roza la temeridad", y ha afirmado que si cree en lo que dice "sea serio y diríjase a los tribunales". Para él, la Diputación "se ha obsesionado en la defensa de los intereses de Bizkaia" en cuanto supo que Jabyer Fernández pretendía "engañar" a los vizcaínos; algo que hizo también "con el Reino de España, y los gobiernos autonómicos de Aragón, Andalucía y País Vasco", según Pradales.

Ekain Rico, del PSE-EE, ha criticado la "pésima" gestión en este asunto del Gobierno foral anterior, pero ha enfatizado que "las responsabilidades políticas son para quienes tomaron aquellas decisiones, y no para los actuales dirigentes de este organismo".

Los junteros de EH Bildu y Podemos, por su parte, han resaltado la gestión "lamentable" en este proyecto y han preguntado si se "asumirán responsabilidades", ya que "no basta con pedir perdón".



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NORMA FORAL DE INCOMPATIBILIDADES

En la misma, a preguntas de Podemos Bizkaia sobre el grado de ejecución de la “Norma Foral de integridad, conflicto de intereses e incompatibilidades”, la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha admitido cierto retraso en el registro del proyecto normativo debido a la carga de trabajo que suponen la elaboración de esta normativa con la norma foral de transparencia y la de cláusulas sociales. En cualquier caso, la responsable foral ha asegurado que el documento, que será elaborado con medios propios, estará preparado “en los primeros meses” de 2017. Según el grupo morado la Diputación se había comprometido a presentarlo este año en base al cronograma publicado en el plan Bizkaia Goazen 2030.